Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Emiliano Mujika Mandiola

Gabiria, Gipuzkoa (1950)



Aurkibidea

Biografia



Emi bezala ere ezaguna. Gabirian jaioa, ama bertakoa zuen. Aita, berriz, Albizturtik Gabiriara joandakoa, maisu (antzerki talde bat sortu zuen, ikasleekin euskaraz aritzeko). Emik 7 urte zituenean aita Eibarrera bidali zuten lanera, eta hara joan ziren bizitzera. Emik Fisika ikasi zuen, Zaragozan. Ez zeukan irakasle izateko asmorik, baina bi ikastolatatik bila joan zitzaizkion, matematikak emateko tituludun irakasleak behar zituztelako. Pasai Donibaneko ikastolan hasi zen lanean, 1974an. Pasaia-Lezo lizeoaren sorreran hartu zuen parte; Lizeoko lehenengo zuzendaria izan zen, eta bertan egin zuen lana erretiroa hartu zuen arte. Ikastolari buruzko elkarrizketa egin genion, Agustin Migeltorena lankide ohia ere bertan zela.

Zintak

GAB-013

- **Proiektua**: Badiako ikastola txikiak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2025-04-23
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Fisikako ikasketak bukatu eta Donibaneko ikastolan hasi

- **Erref**: GAB-013/004
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:01:11. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Fisika ikasi zuen Emik eta karrera bukatzen zebilela, Pasai Donibane eta Antxoko ikastolatik joan ziren bere bila, matematika, fisika eta kimika emango zituen irakasle tituludun bat behar zutelako. Zalantzak izan zituen, baina Donibaneko ikastolan hasi zen lanean.

2. Donibaneko hasierako ikastolako matematikako irakaslea

- **Erref**: GAB-013/005
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:04:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Lau eraikin edo lokaletan zegoen banatuta Donibaneko ikastola, Emi bertan lanean hasi zenean. Karmele, Lourdes eta Gemma Sistiaga, Joxe Antonio Etxezarreta eta Manu Labaien ziren irakasleak. Gipuzkoako ikastoletako irakasleetatik, seminariorik pasatu ez zen lehenengo izan zen Emi. Ez zegoenez materialik, Erein argitaletxean talde bat sortu zuten fisikako eta kimikako liburuak sortzeko.

3. Hasierako Donibaneko ikastola

- **Erref**: GAB-013/007
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:06:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Donibaneko hasierako ikastolako geletan baldintza minimoak betetzen ziren. Ikastola ilegala zen eta ikuskatzailea joan behar zenean, titulu gabeko irakasleak ezkutatzen ziren eta zeukaten guztiak agertzen ziren. Gurasoek, ikastolan parte hartzen zuten eta inplikazioa totala zen.

4. Lehenengo andereñoen ikastolak etxeetan

- **Erref**: GAB-013/008
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:06:51. **Bukatu**: 00:09:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Gaur egun ezagutzen dugun ikastolak sortu aurretik, andereñoek etxean ematen zituzten euskarazko klase partikularrak.

5. Ikastolako lokalak Pasaiako badia guztian sakabanatuta

- **Erref**: GAB-013/011

- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:09:48. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Donibaneko ikastolak izan dituen eraikin edo lokal ezberdinak aipatzen ditu: kooperatiba baten baxuetan, Itsasmendi elkartearen lokaletan, Tisbe-ko lokaletan... Gainontzeko herrietan ere berdina gertatzen zen. Antxoko 2. hezkuntzako ikastolako ikasleak Beraunen (Errenteria) jasotzen zituzten klaseak.

6. Pasaia-Lezo lizeoa sortzearen beharra

- **Erref**: GAB-013/012
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Pasaia-Lezo lizeoa sortzearen beharraz hitz egiten du. Ikastola legeztatzeaz gain, haurrak elkartzeko beharra zegoen, klaseak oso txikiak zirelako. 1970eko hamarkadaren hasieran, badiako ikastola txikiko jendea elkartzen hasi zen, zer egin zitekeen aztertzeko. Herrerako auzoa proiektutik kanpo geratzea erabaki zuen eta Pasaiak eta Lezok jarraitu zuten aurrera. "Gaztelutxo"elkartea sortu zen lizeoaren proiektua aurrera eramateko. Hamar kideko batzordea zen (bi pertsona herri bakoitzeko).

7. Proiektu komuna, bost herritan banatuta

- **Erref**: GAB-013/013
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:15:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Ikastetxe bat sortzeko, gutxienez maila edo lerro bakoitzeko gela bat bete behar zen. Ikastola guztiak elkartuta, bi lerro zituzten lizeoan. Lizeoaren prozesua luzea izan zen, gehienbat eraikinagatik. Lizeoa zabalduta zen arte, nahiz eta proiektu amankomuna egon, herri bakoitzean ikastolako gelak zeuden.

8. Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo ikasleak, bigarren hezkuntzakoak

- **Erref**: GAB-013/014
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:15:19. **Bukatu**: 00:16:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Lizeoa zabaldu arte, ikasleak ahalik eta gutxien mugitzea zen helburua. Lehen hezkuntza herri bakoitzean zegoen eta bigarren hezkuntzarako Beraunen elkartzen ziren batzuk. Lizeoa zabaldu zenean, hasieran bigarren hezkuntzako ikasleak pasatu ziren.

9. Pasaia-Lezo lizeoaren kokapena

- **Erref**: GAB-013/016
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:17:13. **Bukatu**: 00:18:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Lizeoa eraikitzeko, Pasaiako Udalak Donibanen lur batzuk eskaini zituen baina ez zen egokia ikusi, herrian bertan zegoelako eta etxez inguratuta. Hilerri ondoko lur batzuk erabiltzea proposatu zen eta birkalifikatu ondoren, eraikitzen hasi ziren. Uranga (Hondarribia) eta Emilio Chinarro (Madrid) izan ziren arkitektoak.

10. Lizeoa eraikitzeko kredituak, kuotak eta diru-bilketak

- **Erref**: GAB-013/019
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:19:43. **Bukatu**: 00:22:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:
Lizeoa eraikitzeko banketxeari kreditua eskatu zitzaion eta guraso bakoitzak 10.000 pezeta jarri zituen. Jendea oso prest agertu zen proiektuarekin. Jaietan, beti antolatzen ziren dirua biltzeko ekimenak eta irakasleek zein gurasoek hartzen zuten parte.

11. Lizeora igotzeko bidea, ikasleak egindakoa da

- **Erref**: GAB-013/020
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:22:25. **Bukatu**: 00:23:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Lizeoa zabaldu zenean, bukatu gabe zegoen. Bertara heltzeko bidea egin gabe zegoen eta ikasleek egin zuten bide hori.

12. Ikastolaren metodologia berritzaitzea

- **Erref**: GAB-013/021
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:23:40. **Bukatu**: 00:25:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:
Lizeoan zein ikastola txikietan, naturarekiko harremana oso garrantzitsua zen. Baratzea jarri, irteerak... Garai hartarako, metodologia berritzaileak erabiltzen ziren baina guraso batzuek metodologia klasikoa nahiago zuten.

13. Ikastola txikietatik lizeora, aldaketa izugarria

- **Erref**: GAB-013/023
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:26:21. **Bukatu**: 00:28:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:
Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo zuzendaria izan zen eta bertan aritu zen zortzi urtez. Ikastola txikietatik lizeorako aldaketa oso handia izan zen. Autobus zerbitzua izugarria zen.

14. Madrilera joan zen batxilergoa lizeoan emateko baimenaren bila

- **Erref**: GAB-013/024
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:28:25. **Bukatu**: 00:30:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Ez zeukaten euskarazko irakaskuntzako materialik. Irakasleek sortzen zituzten edo gaztelaniazko liburuak erabiltzen zituzten. Hasieran ez zuten batxilergoa eskaintzen eta Madrilera joan behar izan zuen baimena eskatzera.

15. Pasaia-Lezo lizeoa ofizialki 1979an inauguratu zen

- **Erref**: GAB-013/025
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:30:43. **Bukatu**: 00:31:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Lizeoa ofizialki 1979an inauguratu bazen ere, 1977az geroztik, bigarren hezkuntzako ikasleak bertara joaten ziren. Eraikinaren erdia zegoen eginda ordurako.

16. Ikastolako bigarren hezkuntzako ikasleak Beraunen

- **Erref**: GAB-013/028
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:32:06. **Bukatu**: 00:33:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Lizeoa egin bitartean, bost herrietako ikastolako bigarren hezkuntzako ikasleak Beraunera joaten ziren, denak elkarrekin. Herri ezberdinetako ikasleen arteko pikeak. Ikasleak oso ezberdinak ziren.

17. Pasaiako badiako herrietako desberdintasunak

- **Erref**: GAB-013/030
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:33:58. **Bukatu**: 00:36:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Pasaiako eta Lezoko herritarren arteko janzkera ezberdina zen, eta ikasturte hasieran, Emi guraso bakoitza nongoa zen asmatzen saiatzen zen. Euskararen erabileran ere euskalkiak ere, ezberdintasun handiak zeuden.

18. Gabiriako maisua 1930etik 1957arte

- **Erref**: GAB-013/037
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:41:39. **Bukatu**: 00:43:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Emiren aita, 27 urtez Gabiriako maisua izan zen, 1930etik 1957ra arte. Klase bakarrean, 5-10 urte bitarteko 50 bat ikasle zituen. Klaseak gaztelaniaz eman behar zituen, baina euskaltzalea zenez, haurrekin euskarazko antzerki talde bat sortu zuen eta herriz-herri ibiltzen ziren.

19. Ez zekien umetako lagunak euskaldunak zirela

- **Erref**: GAB-013/038
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:45:08

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Orain dela urte batzuk arte ez du jakin umetako lagunak euskaldunak zirela. Etxean bakarrik egiten zuten euskaraz, ezkutuan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com